

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Barruko senak agindutako itsasoko lan folkya

Iñigo Garces iruindarra oso ezaguna da bere umorearengatik eta, batez ere, Jugos Lixiviados, Mermaid, Basque Country Pharaons, Atom Rhumba eta bestelako taldeen sortzaile edo kide izateagatik. Ezagutzen dutenek badakite irudimen handia duela eta oso ausarta dela. Hala, bakarkako bidetari ekin zionean edozer gauza espero genuen...

Eta halakoa izan da emaitza. *Sail with Lord Alembic*-ek eskema guztiak apurtu ditu. Euskal arrantzaleen kondairak esklabo beltzenen parera jarri ditu, mitifikatuz. Eta ingelesa, gaztelania eta euskara erabilia, baladak, taberna kutsuko kantu herrikoiak, folka eta rock apur bat –gutxi– batu ditu. Creedence, Nick Cave, Pogues, Tom Waits zein Miguel Ríos (!) ekar ditzake gogora; eta Eskorbutoaren bertsio bat ere egin du. Hori guztia, serio hartutako lan baten baitan, bere barruko sena husteko balio izan diona.



Sail with Lord Alembic Royal Canal

NOIZPOP

Iraupena: 43'22"
12,60 euro

IÑIGO FIREHEAD - ROYAL CANAL

«Musika giroan umore falta handia dago, eta manager eta promotore asko sobera daude»

Diskoaren jarrerak gogora ekarri dizkit Jon Iturbek bakarka egindako lanak; eta Mike Wattek aitona marinelen ome-
nez egindakoa ere bai.

Mike Watt-en Minutemen eta Firehose taldeak oso gustuko ditut, baina ez dut lan hori ezagutzen. Bestalde, Iturbere lanak eragin nau, bakarka ekiteko ausardia izan zuelako.

Egia da nafarren jatorria bilatzeko Irlandako marinelenaga jo behar dela? Nola bururatu zitzaizun itsas-gaiak aukeratzear?

Ez dakit nondik gatozen... Itsasoak gauza asko irudikarazten dizkit. Itsasoa baino, inguruan sortutako kultura miresten dut. Zein helburu jarri zenituen? Axola zizun jendeak lan hau serio hartzeak?

Ez nuen helbururik, baina barruko harra atera dut. Abestiak idatzi, eta bateria-joleak eta biok grabatu genituen, talderik gabe. Gustuko dut emaitza eta harrera ona izan du. Abesteko eta gitarra jotzeko lotsa galtzen ari naiz. Inoiz ez naute serio hartu; hortaz, zertarako arduratu?

Bank of Royal Canal Bob Dylanek ezaguna bilakatu zuen Brendan Behanen kantua da. Zergatik aukeratu zenuen?

Ezaguna dut kantua, baina Pogues-ek jotzen zuen *Auld Triangle*-etik hartu nuen... Kanal hori berbagai du. Baxu jotzaileak kanaleko ur botila bat ekarri zidan... A ze kiratsa duen!

The Poguesekin parekatzen zaituzte, baina nik gertuago ikusten ditut Nick Cave, Creedence, Tom Waits, Atom Rhumba, Julieta Venegas, Miguel Ríos...

Venegasena labankada itzela da!! Abesti hori Shane

McGowanen baladen ildokoa da. Poguesena nik esaten dut... Beste eraginekin ados nago, baina Miguel Ríos demokrata liberal rockero nazkagarri bat da! Gora Eskorbuto!

Umore handia daukazu, baina aldi berean musika oso serio hartzen duzu. Musika giroa serioegia da, ezta?

Ez da gauza gustukoagorik une deserosoa txiste tonto batekin apurtzea baino. Baina tira, berezko etorria behar da. Bai, umore falta dago, eta manager eta promotore asko sobera.

